BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3599

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 31koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinen bidez argitaratzen baita Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak funtsezko ikerketarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako agente zientifiko-teknologikoentzat bideratzen dituen laguntzen 2013ko deialdia (Saiotek Programa).

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko urriaren 2ko Aginduak funtsezko ikerketarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako agente zientifiko teknologikoentzako laguntza-programa arautzen du (Saiotek Programa; 2008ko urriaren 16ko EHAA); programa horren xedea da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako agente zientifiko-teknologikoen ekonomikoa ez den jarduera finantzatzea.

Aipatutako aginduaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2013ko ekitaldirako deialdia egin behar da, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak eman.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 10.2. artikuluan ezarritako eskumena erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea

Ebazpen honen helburua honako hau da: funtsezko ikerketarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako agente zientifiko-teknologikoentzako laguntza-programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko urriaren 2ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2013rako deialdia egitea (Saiotek programa).

Helburu hori betetzeko, 7.000.000 euro bideratuko dira 2013ko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan berariaz arlo horretarako izendatutako aurrekontu kredituaren arabera.

Programaren agindu arautzailearen 2. artikuluaren arabera, zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren beste laguntza-programa batzuk burutu ondoren agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera, eta betiere laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Aldaketarik izanez gero, Berrikuntza, Teknologia eta Lehiakortasuneko sailburuordeak ebazpena emango du, aurreko guztiaren berri emateko.

2. artikulua.– Baldintzak

Eskatzaileek, funtsezko ikerketarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako agente zientifiko-teknologikoentzako laguntza-programa arautzen duen Aginduan aurreikusitako laguntzak jasotzeko (Saiotek programa), erakunde onuradunen kategoria izan beharko dute, aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.– Eskaerak eta epeak.

1.– Eskaera-eredu bat Interneteko www.euskadi.net/industria helbidean behera kargatu ahal izango da.

2.– Eskaerak eta gainerako agiri osagarriak honako toki hauetan aurkeztu beharko dira: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lurralde historiko bakoitzean duen lurralde-bulegoan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak zehaztutako tokietan, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan zehaztutako tokietan.

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2013ko irailaren 13an amaituko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Deialdi-ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 31.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.